


Erreportaia:

Garai bateko bertsolari oriotarrak

Elkarrizketa:

Jose Luis Kortas



Sorkunde Lizaso Alzpurua
Kaia Kalea 9, 4.ezk.
ORIO

ORIO

ORIOKO

EUSKAL ALDIZKARIA

KarKara

22. zenbakia. Doan, 1993ko ekaina

ORIOKO UDALA. EUSKARA-BATZORDEA

UEUko ikastaroetan parte hartzeko dirulaguntzak

Orioko Udaleko Euskara-Batzordeak urtero bezala, dirulaguntzak eskaintzen dizkie Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Udako Ikastaroetan parte hartu nahi duten Oriotarrei. Ikastaroak Iruñean izango dira uztailaren bigarren hamabostaldian. Gai ezberdin askotako ikastaroak daude, batez ere unibertsitateko ikasleei zuzenduak. Dirulaguntza eskatzeko edo informazio gehiago nahi izanez gero, jo Udaleko Euskara-Zerbitzura. Laguntza horietako bat eskatzeko azken eguna ekainaren 25a da.



ORRAZKERAK

AITA LERTXUNDI, 22
TFNOA. 83 12 61

GABON

Taberna-Kafetegia

Telefona: 83 06 09



Gure herriko garagardoa

DORRONSORO

Janaridenda

ABESLARI, 3

TELEFONOA 83 09 37

boutique

daddy

Estropalari kalea, 12 - Telf. 1 3 2 8 1 6 - ORIO



Eusko Gudari, 33 tfnoa: 83 39 20

ONETAROK
POLTSK

AREIZAGA

Abeslari, 4

**Bertan
egindako
opil eta ogiak**



Frontoi ondoan
Tfnoa: 83 01 89

AURKIBIDEA

KarKara
aldizkaria

Lege-gordailua:

SS 346/90

ISSN 1132-1105

Tirada: 800 ale

Herriko Plaza, 1

20810 ORIO

Tfnoa: 83 15 27

Erredakzio-taldea:

Marisa Arnauabarrena

Miren Etxeberria

Jabier Galton

Ana G. de Txabarri

Ana Iturain

Itxaki Iturain

Nere Manterola

Jabier Zabaleta

Kolaboratzaileak:

Manu Etxeberria

Joxemari Lertxundi

Patxi Oliden

Jon Sarasua

Azken orrialdeko

marraskia:

Daniel Bastos

Argazkiak:

Ana G. de Txabarri

Inprimategia:

Bizker (Usurbil)

- 5** Herrian galdezka: Hauteskunde kanpainak eraginik ba al du?
- 6** Herriko Kontuak
- 9** Kirolak
- 12** Erreportaia: Garai bateko bertsolari oriotarrak
- 14** Iritzia: Herriko bertsoa. Jon Sarasua
- 15** Bertsoak: KARKARA aiarrei deika. Joxemari Lertxundi
- 16** Elkarrizketa: "Berriz ere lehen mailan gaude": Jose Luis Korta
- 18** Denetik piska bat
- 21** Kolaborazioa: Zenbait datu kirol-portuaren proiektuaz.
- 22** Azkena



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria

DENBORAPASA

HIZKI ZOPA

I K A R R A P A N U
L I S U T L O X E T
I X U X A N A E R X
R K A R E N K S M A
R M U L I Z A T U N
U I O B B Ñ M E S G
T M L H I A N R X A
Z O K X Z P R O S T
U X T R A U I D N I
K A N P A N A R I O
K O X O M I M A R N
U Ñ I B S P Z T E L
R T Z T I A K A Ñ A
O U E Z D U N B I K
H R I M K G A E S O

Honekin, atal berri bati ekin nahi diogu. Orion hain ezagunak diren ezizenekin hasiko gara. Hori bai, beraien artean nolabaiteko lotura behar dutela eta, oraingoan Euskaltegian E.G.A. eta Alfabetazte mailan dauden zenbait ikasleren ezizenak asmatu behar dituzue. Denera 10 dira. Ea bada, nork lehenago!



"EUSKARAZ, GAZTE"

*"Euskaraz belarriz
Euskaraz eztarriz
Guztion amets lorgarri"*

Elixabete Etxezarreta

KarKara

Herriko Plaza, 1
20810 ORIO
Tfnoa: 83 15 27

**1993ko
publizitate-prezioak**

Modulo bat 1.500 PTA
Bi modulo 3.000 PTA
Hiru modulo 4.500 PTA
Lau modulo 6.000 PTA
Sei modulo 9.000 PTA
Orrialde erdia .. 13.500 PTA
Orrialde osoa .. 27.000 PTA

☞ Prezio hauek zenbaldi baterako balio dute. Urtean hamar zenbaki argitaratuko ditugunez, zenbaldi guztietan beren publizitatea egin nahi dutenek % 10eko deskontua izango dute prezio hauen gainean.

HERRIAN GALDEZKA

Hauteskunde kanpainak eraginik ba al du?

Hauteskundeak gainean ditugu eta partidu bakoitza bere kanpaina egiten ari da. Guzti honetaz oriotarrek zer iritziz duten jakin nahi izan dugu, beraien ustea kanpainak eraginik ba ote duen, zer iruditzen zaien kanpainak egitea, emaitzetan eraginik ba ote duen...



Arantxa Uranga

56 urte

Niri ez zait iruditzen kanpaina baten eraginez norbaitek botua alda dezakeenik, ze hori barruan eramaten da; horiek ikusi gabe bakoitzak jakiten du nori eman behar dion botua. Nire ustez partidu gehigi dago.



Arantxa Iglesias

15 urte

Batzurengan bakarrik du eragina. Kanpaina egitea ondo iruditzen zait, partidu bakoitzak zer eskeintzen duen informatzeko. Nik partidu bati, gazteez preokupatzeko eskatuko nioke.

J. M. Sarasola

34 urte

Neretzako kanpainak ez dauka eragin handiegirik, bakoitzak badakielako nori eman behar dion botua. Nire ustez emaitzak ez dira aldatzen beraiek uste duten adina.



Aitor Manterola

14 urte

Kanpainak eragin piska bat badu, dudan dagoenari lagunduko dio. Kanpaina eginda emaitza hobeak lortzen direla uste dut, kolokan dagoen jendeak erabakia hartzen baitu.



RAMIRO

ARGAZKIAK

Eusko Gudari, 9

☎ 83 10 48

HARAGIA GUSTORA JAN NAHI
BADUZU EROS EZAZU...

Kepa Loidi

harategia urdaitegian

Pelotari, 1 Tfnoa 83 25 65

KOLON TXIKI

Herriko plaza, 4


☎ 83 00 44 13 20 26

ertza

USAINDEGIA

HERRIKO KONTUAK

Euskararen erabileraren kale-neurketa 1993



Orioko gazteek euskara gehiago erabiltzen dute

Udal Euskara Zerbitzuak malatzaren bigarren astean egindako kale-neurketaren arabera, euskararen erabilera igo egin da, iaiztik hona, Orioko gazteen artean, laz igoera nabarmena gertatu zen eta aurten ere gazteen euskararen erabilerak gora egin du ostera. Haurren artean ere igoera nabaria izan da.

Aurten lehenbiziko aldiz, bestalde, gazteen erabilera-portzentaia helduena baino altuagoa izan da. Kontutan izan behar da neurketa horiek egiten hasi zirenetik —orain dela bost urte— gazteena izan dela beti, aurtengoa arte, erabilera-portzentaia baxuena. Badinudi joera hori aldatzen hasi dela.

Aurtengoa Orton egiten den laugarren neurketa izan da. Neurketako datuak biltzen Eneko Olaraga eta Imanol Alkorta gazte oriotarrak aritu dira, Euskara Zerbitzuaren koordinaziopean.

Goiko grafikoan aurtengo neurketaren emaitzak ikus daitezke eta beheko koadroan, berriz, urtez urteko emaitzen konparaketa.

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Zaharrak	Guztira
1989	% 77,4	% 30,2	% 54,9	% 73,8	% 55,9
1991	% 78,4	% 31,2	% 55,2	% 67,3	% 57,6
1992	% 77	% 50,7	% 59,2	% 67,4	% 62
1993	% 85,8	% 58	% 54	% 72,6	% 62,1

Santiagoako erro-mes bide zaharra konponduko dute auzolandegietako gazteek

Aurtengo Orioko gazte-auzolandegira etorriko diren gazteak Donostiara aintzinarako bidea konponduko dute.

Jakina denez, Orio eta Donostia mendiz lotzen dituen bide hori (Andu eta Benta base-rrian barrena doana) izan da mende askotan Donostiara joateko bide nagusia. Historialariek diotenez, Santiago de Compostelara joateko kostako bidea aukeratzeko zuten erromesek bide horretatik iristen ziren Oriora.

Orain dela urte batzuk Igeldoko bide berria egin zenetik, bide zaharra oso gutxi erabili da eta, ondorioz, ixten ari da eta sasiak hartuta dago. Erdi Aroko galtzada, bestalde, nahiko hondatua dago zenbait zonatan. Bide hori errekuiperatzea izango da aurtengo auzolandegiaren helburua.

Lanak Amaia Usandizaga Udaleko Arkitekto Teknikoaren super-bislopetan egingo dira.

Auzolandegia, iaz bezala, hamabost eguneko bi txandatan egingo da uztailan.

Hemezortzi eta hogeita bi urte arteko gazteak izango dira parte hartuko dutenak.

HERRIKO KONTUAK

Orioko EEko bi zinegotziek talde independentientea osatu dute

Azken hauteskunde munizipaletan Euskadiko Ezkerraren izenean aurkeztu eta aukeratuak izan ziren bi zinegotziek, Jesus Esnal eta Migel Nacental, talde independentientea osatu dute Udalean. Apirilko Udal-Plenoan eman zuten erabaki horren berri.

Jesus Esnal eta Migel Nacental ez ziren, beren alderdia zatitu zenean, Euskal Ezkerran (EUE) sartu eta orain, PSE-EE alderdiaren izenean aritu nahi izan ez dutenez, talde independentientea osatzearan aukera egin dute.

Esku-lanetako ikastaroak uztailean

Udaleko Kultura-Batzordeak antolatuta, esku-lanetako ikastaroak eta zangoluzeko-ikastaroa izango dira uztailearen 19tik 23ra bitartean.

Ikastaroak OHOk hirugarren mailatik gorako ikasleentzat dira. Ikastolan edo Zaraguetan ikasten duten haurrek bertan eman behar dute izena eta kanpoan ikasten dutenek, berriz, udal-bulegoetan, izena emateko azken eguna ekainaren 18a da eta matrikularen prezioa 500 PTAKoa.



Udalak Orioko Gida Turistikoa argitaratu du

Gida Turistiko horren bidez Orioren ikuspegi orokorra eman nahi zaio kanpotik datorren jendeari, bertan aurki ditzakeen gauzarik interesgarrienak agertuz.

Gida euskaraz, ingelesez eta erderaz argitaratu da eta, besteak beste, zera jasotzen du: herriko historiari buruzko apunte batzuk, gaur egungo egoera, hizkuntza, arrauna, ibilbide-proposamen bat Goiko Kanean barrena eta, baita ere, herriko mapa bat.

Gidaren finantziatorako oso inportantea izan da Orioko hainbat eta hainbat enpresa, denda, jatetxe, taberna eta abarrek jarri dituzten iragarkiak.

Udalak gidaren tirada luzea egin du herritarren artean ere banatzeko asmoz. Hasiera batean gidak ez zion Udalari dirunik kostatu behar, dena publizitatearen bitartez finantziatu behar bait zen, baina azkenean,

Udalak nahiago izan du ale gehiago argitaratzea eta Orioko bertako jendearen artean ere banatzea eta, hortaz, ale estra horien prezioa bere gain hartu du.

Bukatu da dagoe-neko aurtengo monitore-ikastaroa

Aurtengo monitore-ikastaroan Orioko 23 gazte jardun dira ikasten, gehienak hemezortzi urte ingurukoak, ikastaroa maiatzaren 8an bukatu zuten eta, beraz, orduz geroztik, Orion hogei hiru monitore berri ditugu. Kontutan izanda iaz beste 38 sortu zirela, esan daiteke monitore-kopuru handi samarra dagoela gure herrian.

Udaleko Gizarte-Orgazitate, Gazteria eta Formaziozko Batzordeak ez zuen, hasiera batean, aurtengo ikastaro hori antolatzeko asmorik, baina eskaria handia izan zenez, azkenean antolatu egin zuen.

Ikastaroa guztiz euskaraz izan da eta Euskal Begirale Eskolak (EBE) eman du.

«Euskaraz, gazte» kanpaina

«Euskaraz, gazte» kanpainaren logotipoa aukeratzeko lehiaketa jarri zuen martxan Euskara-Batzordeak joan den apirilaren bukaeran.

Lehiaketan lanak aurkezteko epea ekainaren 25a arte luzatu da. Lehiaketan parte hartzeko baldintzak eta oinarriak KARKARAREN maiatzeko zenbakian argitaratu ziren.



Diru bilketa kale gorrian geratu den familiarentzat

Jaurita baserritik gora dagoen Amazko Etxaberri izeneko baserria erre egin zen maitzaren bederatzian, eguardi aldera, tximista batek jota eta zeharo kixkalita gelditu zen.

Donostiako Cristina Goenaga eta Rafa Uribe bere bi seme-alabekin bizi ziren duela lau urtetik, ez zuten inolako segururik eta miseria gorrian gelditu ziren, bertan lantokia baitzuten. Ohitura zaharrari jarraituz, laguntza eman nahi duenak dirua sar dezake Kutxako 01/04518873 kontu zenbakian.

Jende ugari bildu zen ikastolak antolatutako bertso-saioan

Maiatzaren 22an, larunbata, Orioko Ikastolak antolatutako bertso-saioan jende ugari bildu zen.

Bertan, Lizaso, Egaña, Lopategi, Euskitze, Sarasua eta Olaso bertsolariak parte hartu zuten. Bertsolariok, goi mailakoak izan arren, bertaratu ziren batzuen iritziz, gaiak piperrik gabekoak izan ziren.

Dena dela, bertso bikainak entzuteko aukera ere izan zen. Eta honen adierazle gisa, Jon Sarasuak hotatuko agurra aukeratu du:

*Ordu ta erdiz jardun degu ta txalorikan ez da eten
horrela ez da hain zaila
bertso txukunak ematen
mila esker Orio
hurrena arte adio
bandera ekarri aurten
ta segi zazu urte askuan
ijito euskaldun izaten.*

Jon Sarasua

Ikastolak pribatuaren bidea hartu du

Malatzaren 21ean, ostirala, Ikastolak Batzarra egin zuen elizan gaueko bederatzietatik aurrera.

Batzar horretan Orioko Herri-Ikastolak publiko bihurtu ala pribatuaren geratzea erabaki behar zuen. Orión inor gutxik bildu zezakeen adinako jende kopurua bildu zuen Ikastolak Batzar horretan: hirurehunetik gora.

Lehenengo, Ikastolako Zuzendaria den Mikel Haranburuk hitz egin zuen, publiko eta pribatuaren arteko konparazioa eginez. Gero, Gurasoen Batzordeko lehendakariak, Goiburuk, hitz egin zuen. Horren atzetik, Felipe Aroztegi, Batzordetik pasatakoen izenean idatzi bat irakurri zuen eta gero, ikasle ohien izenarekin, Patxi Urangak hartu zuen hitza.

Ondoren egin zen bozketan, emaitza erabatekoa izan zen: 301 boto pribatuaren alde, 67 publikoaren alde eta 3 boto zuri.

Aipatu behar da baita ere, irakasleek ere egin zutela beren aukera. Indarrak pareka ibili ziren bi aldeetara. Hau da, bederatzik pribatuaren alde eta bederatzik publikoaren alde.

Balea Elkartek Lujanbio, Fontan, Luxia eta Korta bildu zituen

Balea Elkartean kultur asteko ekitaldirik aipagarrienetan San Juan eta San Pedroko patroiak diren Lujanbio eta Fontan, Zumaiako entrenadore dabilen Luxia oriotarra eta Orioko arraunlari, patrol, entrenadore eta lider den Jose Luis Korta eseri zituen mahai inguruan arraunaren gainean hitz egiteko. Mahai ingurua maiatzaren 13ko gaueko bederatzietan izan zen.

Jendetza haundirik inguratzen lortu ez bazuten ere —larogei bat— Baleako antolatzaileei aitortu behar zate asmatu egin zutela jende hori delitzarakoan bilerara, horrela erakutsi zelako arraunaren inguruan dena ez direla haserreak, eta ezin ikusiak eta beste edozertan bezelaxe arraunaz ere hitz egiterik badagoela modu pake-tsu eta positiboan.

Lujanbiok adierazi zuen bezala uretan etsai amorratuak izan daitezke, bera San Pe-

drokoekin den bezala, eta lehorrean lagunak izan, eta gainera hala behar duela esan zuen.

Hitz guztiak ez ziren bat etorri, noski, eta horrela Luxiarentzat estropada gehiegi baldin badago ere Kortarentzat sekula ez da gehiegi, arraunlariak estropadak behar omen dituzte eten gabe. Ez ziren ados jarri eta ere, Kortak Federazioetan dagoen ustelkeria salatu zuenean, besteek ez zuten gauza hain ilun ikusten, baina Kortak behin eta berriz esan zuen direktiboek beren patrikari begiratzen dietela eta ez arraunlarien interesel.

Halere gauza gehienetan ados jarri ziren, la beti Kortak egin zituen salaketa eta proposamenekin. Jose Luisek batasuna eskatu zuen behin eta berriz arraunlarien artean, kirol hau maila duin eta egoki batera eramateko. Horretarako diruaren premia azpimarratu zuten, eta bideak



proposatu ere bai. Beharrezko diru hori lortzeko ezin bestekotat jo zuten baita ere, telebistak egin beharreko lana kirol honen oihartzuna zabaltzeko eta diru laguntzaileak lortzeko.

Bestetik kritika zorrotza egin zuten Kortak Kontxako estropadei eta beren antolatzaileei, esanaz lotsagarria dela hiru eguneko estropadetan, hainbeste ikusle biltzen dutenak eta daukaten ospearekin, nola litekeen bost milioiko sariak egotea hainbeste arraunlarientzat, Lasarten jokatzeko den edozein zaldi lasterketatan zaldi irabazleak hiru milioiko saria duen bitartean.

Trainueren arteko liga antolatzearekin bat etorri ziren. Beren ustez liga hori ez luke Federazioak antolatu behar, sponsor edo babesle egoki baten laguntzarekin sortutako Elkartek batek baizik.

Azkenik, arraunketa mobila eta fijoaren arteko bereizketaren premia ere azaldu zuen, bere ustez ezin direlako, bakontzak duen problematika ezberdina Federazio baten barruan denak konpondu modu egokian. Arraunketaren munduak iraultza eta halze berriak behar omen ditu, gaur egun dagoen ustelkeria errotik aldatzeko.

Orio's Shop

EUSKO GUDARI, 17 TELEFONOA: 83 12 44

- * Udaberrirako jantziak
- * Aukera-aukerako moda gaztea



Hauek dira hamaikakoak: Juanjo, Alberto, Jon Abaurrea, Jose Martin, Santos, Xabier, Ramon, Rogelio, Iñigo, Jaime eta Jon Amilibia. Entrenatzailea: Clemente

Orioko Futbol Taldea rejonaleetako lehen mailara

Maiatzaren 22an Antillako zelaian Tolosako taldeari 2-1 irabaziz oriotarrek rejonaleetako lehen mailarako pasaportea eskuratu zuten, lehenengo partidua husna berdindu ondoren Tolosan.

Partidu hori izan da Antillako zelaia zabalku zenetik, bertan jokatu den partidurik inportanteena, jokoan maila batetik bestera igotzea bait zegoen. Hori zela eta "Klubaren eguna" izendatu zuten partidua, alegia bazkideek ere ordaindu beharrekoa. Hala ere, Antillara sekula baino jendetza handiagoa bildu zen. Horrezaz gain, bazen beste nobedaderik ere partidu horretan, markagailu berria estrenatu zen eta lehenengo aldiz arbitruak bere lana bi marrazainek lagunduta bete zuen.

Partidu aurretik omenaldi apal baina unkigarria eskaini zitzaion taldeko masailaria izandako Jose Mari Lazkano zenari, bere emazte Milagrosi oroigarri bat eta lore sorta bat oparituz.

Lehenengo gola Iñigo Garmendiak sartu zuen Casadok emandako pase zoragarri bati esker, eta bigarrena Xabier Ibarbiak, buruz. Partidua bukatzeko minutu gutxi falta zirela Tolosarrek beren gola lortu zuten, baina arbitroaren azken txistukadak bukaera jarri zion gol horrek ekarritako emozioari eta hasiera ondorengo poza eta parrandari. Tolosako jokalariek, kiroltasun handiz, pasillo bat egin eta oriotarrei txalotu ondoren, Oriokoek aldageletan hasi zuten festa txanpaña botellak zabalduz. Gero txarangakoen musikak lagunduta udaletxera jo zuten, bertako harkoitik herriarron txalo bero eta emotiboak jasotzeko. Orion estropadarik gabeko lehenengo alirontzat jo dezakegunaren protagonistak bihurtuz.

Herri-krossa ekainaren 27an

Kirol Antolakuntzeta-rako Komite Lokalak herri-krossa antolatu du ekainaren 27rako. Hainbat zirkuitu prestatu dituzte maila desberdinetako korrikalarientzat: alebinak, 2.000 metrokoa; infantilak, 2.700 m; kadeteak, 3.600 m; emakumezko zein gizonetzko junior, senior eta beteranoak 10.350 m.

Haurren lasterketa goizeko hamarretan hasiko da eta helduenak hamaiketari. Sari eta trofeo asko izango dira parte hartzaileentzat.

Antolatzaileek, Orion korrika egiteko gero eta zaletasun handiagoa da goela ikusita, herriko jendeak parte hartzea nahi dute.

Oharra

Aurreko alean esan genuen bost arraunlari oriotar delituak izan zirela Euskadiko Selektziora eta gezur txiki bat esan genuen, ez bait ziren bost izan, zazpi batziki. Ibon Gaztañazpi eta Gorka Etxeberria kadeteak dira abaztu zitzaizkigunak. Bestetik esan behar da Juan Anjel Garmendia "Xarpas" jubeniletako selektzioratzaile dabilela aspaldi honetan.

Ibai Peña Arratibel:

"Badut esperantza Europako Judoko Txapelketara joateko"

Orioko judoka gazte honek Madrilen maiatzaren 23an egin den Judoko Espainiako Txapelketan bigarren postua lortu du Sub17 kategorian, 50 kilogramoz beharako azpikategorian. Ibai Peñak hamalau urte ditu eta judoa praktikatzen Orion hasi bazen ere, gaur egun Usurbilgo Judo Elkartearen izenean aritzen da konpetizioan.



Nolatan hasi zinen judoa praktikatzen?

Orioko gimnasioa ireki zenean, orain dela zortzi bat urte, beste lagun batzuekin hasi nintzen judoa egiten eta, geroztik, segitu egin diot.

Orain dela hiru urte, herriz, Usurbilen ere entrenatzen hasi nintzen, nere preparazioa hobetzeko.

Egia esan, ni zazpi urterekin hasi nintzen, ez zegoen nere adinekoentzat kirola egiteko beste aukerarik herrian, eskola mailakoa ez ba-

zen. Gero, piskanaka sartzen hasi nintzen, gustoa hartu nion eta, nahiz eta nere lagunek utzi, nik aurrera egin dut.

Zeinekin aritzen zara? zein duzu entrenatzaile?

Hasieran Juan Carlos Lazkanorekin hasi nintzen Orion entrenatzen eta orain —azken lau urtetan— Esteban Arriaga donostiarrarekin aritzen naiz Orion eta Usurbilen.

Nerekin batera ari dira, baita ere, Xabier

Urkizu eta Iker Ostolaza, eta orain beste batzuk ere badaude, hasiko ote diren.

Astean zenbat aldiz entrenatzen duzu?

Astelehenetik ostiralera, hau da, larunbat eta igandeak kenduta, egunero. Hala ere, asteburu askotan konpetizioak ditut.

Entrenamendu gogorak egiten ditugu, batez ere astelehen, asteazken eta ostiraletan. Egunero, gutxienez, ordu erdiz aritzen gara.

Zein dira zure aspirazioak?

Ekainaren 19an Madrilen Ranking bat jokatuko dugu Europako Txapelketara nor joango den erabakitzeko. Europako txapelketa Hollandan izango da uda partean. Nik esperantza badut bertara joateko aukeratua izateko eta gogoz ari naiz prestatzen 50 kilogramoz beharako kategorian aurkeztuko naiz eta, muga horretan nabiltenez, ahalegin handia egiten ari naiz pisuari eusteko.

AXUN

JANARIDENDA

Tfnoa: 83-59-02

IL GELATO

Etxeko helatuak
eta kruasanak

San Nikolas 17 TFNOA 131747

URANGA BURDINDEGIA

EUSKO GUDARI 7
TFNOA 831236

Garai bateko bertsolari oriotarrak

Oriotar bati galdetuz gero Orion ze bertsolari ezagutzen duen esku bateko behatzak nahikoak lirateke esango lituzkeenak kontatzeko. Seguruaski Lasarte aita semeak eta Etxeberria aipatu lituzke, Sarasua, Jon oriotartuz, hasi berritan den Esoain eta besteren bat akaso. Baina Aita Antonio Zabalaen liburu batzuri esker badakigu Orion, oraindik aspaldi ez dela, bertsotarako afizio handia izan dela, eta jende asko zegoela bertsotarako gauza zena.

Iñaki Iturain

Lehenbizi alpatuko dugun bertsolaria Juan Bautista Urtia Portu, Gaztelu baserrian jalo zen 1880 ko apirilaren 30ean. Gaztelu baserria Saikolatik gora dago Oriok Aginagarekin muga egiten duen leku berean. Zortzi senideko zazpigarrena, Baita gazterik hasi zen kantari, hemezortzi urte zituela ezteletara eramane zuten bertsotik kantatzen.

Asko kantatu zuen bere denboran, kantu lagunien artean Pello Errota eta Txirrita handiak izan zituen.

Gazteluri ezagutzen dizkigun bertsotatik batzuk bertsotik paperetan jasotak dira, esate baterako 1919 eta 1925 urteetako estropadei jarritakoak, eta beste batzuk ahoz aho gaur egun arte herriak gorde dituenak.

goitiz Pello Saikola esaten ziotena. Honek ere makina bat saio egin zituen Gaztelurekin bertsotan.

Axentxio Txanka

Axentxio Txanka, Etxabe Leribundi abizenek, Orioko Txanka Goikoa baserrian jalo zen 1890ko otsailaren 21ean. Lau senideko familian gazteena mutiazahar gelditu zen eta bere denbora guztia jaiotetxean egin zuen, nekazaritzan. Aita ere, Inazio Mari, bertsolaria zen. Axentxiok, bapatean tabernari eta lagun artean kantatu zuen arren, bertsotik paperetan egin zuen sekulako lana. Berak idazten ez omen zekienez bere loba Anitak egiten zion sekretaritzat lana, eta gerora Pello Saikola eta Frantzisko Lertxundik,

Errikobian bertsolariaren biloba eta bertsolaria hau ere. Hiru hauen lanari esker ezagutzen zaizkio Txankari bere bertsotik paperak. 1961ko urrian hil zen bihotzekoak jota.

Txankak, Kukuarri mendian gurutzea jarri zuteneko bertsotik sorta ederra utzi zigun. Baita San Pedro jalei, herriko arrantzaleei, Luis Atxaga karga-jasotzaileari edo herriko elizan egiten ziren "mistoei" ere. Baina Axentxioren bertsotik gehienak Orioko arraunlariak eta hauen garaipenak eginak dira. Ondo asko kontatzen digu Txankak 30,40, eta 50 hamarkadarako estropaden berri, batez ere San Pedrotarren kontrako norgehiagokak eta Mitxelena, Sarasua, Txokolate eta abarren garaipenak eta banderak.

1935ean egindako argazkia. Bertan azaltzen direnetatik gaur egun bizirik daudenak honako hauek dira: Muniotako frantsesa, Jose M. Lertxundi; Franzisko Arruti; Franzisko Makazaga, Luxarbe; Agustín, Jose eta Esteban Gozategi, Kallabarro; Nikolas Esnaol, Etxeberri; Jose eta Jose M. Peña, Sabe. Kuadrila hori izan zen San Martin auzoko festei hasiera eman ziena urte hartan bertan.



ERREPORTAIA

Errikotxia

Errikotxia bertsolaria, Jose Agustin Lertxundi Alda Usurbilen jaio zen 1855ean. Zortzi senideko familia osoak ipar alde-
ra jo zuen karlisten gerra-
teari ihesi. Gerra bukatu-
ta, batzuk han geratu bazi-
ren ere Jose Agustin itzuli
eta Orioko Muniota base-
rri-
ra ezkondu zen. Handik
frantsesa lardaskatzen
ikasita etorrria zenez, eus-
keraz ez zekien inor etor-
tzen bazen bera delitzen
omen zuten. Orio eta
Igeldo bitarteko mendi
horretan beste inor ez ze-
lako erdera ulertzen zue-
nik. Bederatzi seme-alaba
izan zituen eta 1932an hil
zen arte, baserriko lane-
tan eta herriz herri, festaz
festa, ibili zen bertso kan-
tari. Patxemikondo bere
lagun txistulariarekin.

Errikotxiaren garatsua
batekoak ziren Itxaspeko
Inazio eta Jose Mari. Ben-
ta baserriko Frantzisko
Etxeberria, Txanka al-
ta-
semeak, Gaztelu osaba
ilobak eta beste zenbait.
Igandetan Orioko biltzen
ziren, mezetara etorrira.
Meza ondoan hamalke-
takoa hiru errialean egin,
tragoxka batzuk edan eta
bertsotan jarduten ziren jo-
ta ke.

Errikotxiak ateraldiak
omen zituen ikaragarri
zorrotzak eta farregarriak.
Behin batek galdeluta:

- nora hoo Getarira?
- zer da ba Getarin?
- Getarin? mitiña



1960ko argazkia. Lizargaten, San Martin festetan. Bertan azaltzen direnetatik asko
aurreko orriko argazkian ere agertzen dira. San Martingo Festen 25. urteurrena ospatzen
zen egunean atara zen. Argazkian agertzen dira, besteak beste, Azpillaga bertsolaria eta
Fabian Loidi apaiza

— Mitiña! Hobe huke
antxua edo sardiña bi tiña

Errekotxiaren seme bat
Prantzisko Mari eta orain-
dik bizi den bere biloba
Frantzisko Amuti ere ber-
tsolariak ditugu.

San Juan bezperan
ohitura handia zeukaten
baserriz baserri ibiltzeko
eskean kopla kantari.
Oraindik orain bizirik di-
rauen ohitura, nahiz gau-
za batzuk aldatuta eta ur-
tero egin ez.

Itxaspe

Inazio Izagirre Sarasua
Azpeitian jaio zen
1857an. Oso gaztea zela
Orioko Itxaspe baserri-
ra ezkondu zen. Ez zekien ez
idazten, ez irakurtzen eta
ez zuen bertso paperik ja-
rri, baina ahotik ahora
erruz kantatu zuen Orio
alde honetan, apenas ate-
ra baitzen beste herritara.
Parrandero samarra izaki

egun asko ematen zituen
etxean agertu ere egin
gabe, Txokolateneko ta-
berna zuen gustokoa.
Errikotxiak behin topo
egin eta puntu hau jarri
zion:

Lengo egun oietan
nun zerode izan?

Ta Itxaspek erantzun:
batzuetan tabernan
bestian elizan,
opor egiñak ditut
askotako gisan
irugarren goizian
etxeratu nitzan.

Ta Errikotxiak berri-
z: Zure andre Luisak
zer zion orduan?

Ta Itxaspek:
ez nitzala etorriko
etsi omen zuan,
preparatu nitzalon
ondradu moduan,
beñ'e baño obeto
gosaldu genduan.

Itxaspek, 76 urterekin
hil zen arte, bertso asko
bota zituen Orioko taber-
netan eta asko jaso dira.

Cristino Arruti zapate-
roa, bertsozale amorra-
tuari esker jaso ahal izan
dira hauetako bertso ge-
hienak. Cristino honen
ama zena bera ere oso
bertsolari ona omen zen.

Don Fabian Loidi

Fabian apaiza bertso-
lari ezezik poeta ere izan
zen eta Orioko bere herri-
tarrei eta herriko gai-
ei bertso sorta asko eskei-
nizkion. Nahiz bera Añor-
gan jaioa izan, bosti urte
zihela umezurtz geratu eta
Oriora etorri zen. 1945tik
1985ean hil zen arte,
Igeldoko apaiza izan zen.
Orioko umezurtzak bale
arrantzari, estropalari,
herriko festei, Orio lito-
herria eta abarri egindako
bertsoetan Orioko ezau-
garnak ederki asko nabar-
mendu zituen



**Jon
Sarasua**
Bertsolaria

Herriko bertsoa

Bertsolaritza gaur eguneko munduan biziarazteko apustua egin degula nabarmen dago. Horregatik gaude, bere arrisku guztiekin, telebistaren, famaren eta irudiaren zurrumbilo salbajea sartuta. Apustu hori onartu egin behar degu. Baina horrek ez du esan nahi bertsolaritza hori bakarrik danik.

Esparru asko ditu bertsolaritzak. Bat, nazio mailakoa da (elitea, jaialdi handiak, telebista...). Beste bat, oso inportantea behar lukena, herri mailakoa. Herri bakoitzean bertsolari-talde bat osatzea, bertso afariak egitea, inguruko bertso saioetan kantatzea, bertako "enbajadak" betetzea, saioak antolatzea, bertso-paperak ateratzea... hori da herri mailako bertsolaritza. Hori egiteko era taldea da. Bertso-talde bezela funtziona-tzen duen bertso-eskola. Adibideak badaude (Bilbon, Laudion, Lea-Artibain, Leintzen, Oñatin...). Era horretako bertso-talde bat erreferentzia gune bihurtzen da herrian, udalarentzako, beste kultur-taldeentzako, herritarrentzako eta ikasi nahi duenarentzako.

Nik bi esparrutan ibiltzeko suertea izan det eta daukat. Nazio mailakoak baditu alde gogor batzuk eta alde onak ere bai. Diru konpensazioa ere bai askotan. Herri mailakoak berriz, beste konpensazio batzuk dauzka. Herriko esparruan gozatu nahi det nik inun baino gehiago. Gehiena hor ikasi det,

eta hor sentitu det bertsotan egitea berez dala gozamina. Ez dakit nazio mailako elitean zenbat urtetan ibiliko naizen, baina herrikoa (bailarakoa) ez det uste hain errez utziko detenik.

Zer gertatzen da gaur egun? Nazio mailako elitearen jardunak beste guztiak estaltzen dituela. Bestela esanda, herri mailako jardunak leku gutxitan funtzionatzen duela. Bertsolari gazte-txo, gazte eta heldu guztiak nazio mailara begira daude. Herriko "futbol taldean" jokatzek inori ez dio ilusiorik egiten. Ez dakit konturatzen geran bertsolaritzaren gozamina takdetik hasten dala, eta herrian funtzio polita bete litekela.

Uste det merezi duela. Jende on asko daukagu herrietan, gazteak batez ere. Danontzako dago bertsotan egiteko lekua. Herrian taldea sortu eta dinamika bat sortu ezker, jendea gehiago trebetuko da bertsotan, frustrazio gutxiago izango da eta elitera joateko moduan daudenak ere hortik sortuko dira. Bertso-talde baten ekintzak mila izan litezke, gogoaren arabera: bertso-afariak egin, herriko saioetan parte hartu, bertako hileta, omenaldi, mitin eta abarretan kantatu, herrian bertso-paperak atera, jaietan ekintzak egin, eskola montatu, esperimentuak egin, tabernetan saio bereziak egin... auskalo. Ni nere esperientziatik ari naiz. Eta Orion zer?

ERRUSTA
taberna

Kriston bokadillok!!

Koasta Lasaitasuna
eta
Taberna giro ona

BERTSOAK

"KARKARA" Aiarrei deika



Joxemari Lertxundi, Laurgaineko basozainak, guk eskatutako bertso hauen bidez KARKARAren esparrua Aiara zabaltzeko deia luzatzen du. Oriok eta Aiak betidanik izan duten lotura mantendu nahian Aiako berriak jasoko dituen pertsona bat aurkitzen saiatu gara, baina ardura hau beteko duen inor lortu ez dugunez, lerro hauetatik bertako baten baten laguntza eskatzen dugu proiektu hau gauzatu ahal izateko.

-1-

Aldizkari bat ementxen dago deitzen zaiona "Karkarra" orain arteko bizitokia dauka Orio bakarra, ikusten zaio bizkortutzeko sail geiagoren bearra. Aia aldera zabaldutzea ez litzateke gauza txarra, eta orretan artuko luke bizia eta indarra.

-3-

Asi gaitzen lanean txukun bakoitza bere baratzan, benetan gaizki ematen baitu narratz emen ta narratz an, aldizkariak bultza delogun egon gabetan zalantzan. Berri guztiak garbi emanez nekazal eta arrantzan, irakurleak sortu ditzagun berri onen esperantzan.

-5-

O! irakurle zaar edo gazte entzun zaidazu mesedez, aldizkarian bizitza orri gaude lagundu bearrez, gauza arretaz artzen badegu indartu gentzake errez. Beraren alde joka dezagun benetako giza-legez, geure eskuan dagoana da bera zabaldu edo ez.

-2-

Erantzun aula dauka oraindik illean beingo aleak, komeni dena ugaldutzea beraren irakurleak, bere egarri jarri ditzagun basarri eta kaleak. Kirol mundua, nekazariak, ta berdin arrantzaleak, erritar danak bear luteke gauza orren mailaleak.

-4-

Orretarako balio duen jende mota bat autatu, gertatzen diren berri guztiak gero ondo apuntatu, ta bakoitzari berea eman ez nastu edo trukatu. Merezi duen aitorenpenikan inortxori ez ukatu, era orretan aldizkarian izango da zer kontatu.

-6-

Lau aizetara zabaldu nai det bertso auen oiartzuna, pentzatutzen det izango dala oiu au zeñek entzuna, arpidedunen artean dago gaur egundoko utzuna. Dei onen bidez esnatzen bada erritar danen zentzuna, iruditzen zait izango dula bear duen erantzuna.

Joxemari Lertxundi

ASEGURUAK

C C L

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

JUAN LOIDI AZKUE

Aritzaga, 3 -1 Telefonoa: 83 11 90 ORIO



**ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA
MIXTOA**

**SOLARIUMA
PERFUMERIA**

San Nikolas, 2 Tfnoa: 83 31 70

ELKARRIZKETA

“Berriz ere lehen mailan gaude”

Arraunerako jaio eta bizi den gure oriotar-ortzaikarrak lortu du, bai, orain bi urte oriotar guztioi ezinezko iruditzen zitzaiguna; tradizioz ohitura izandakoa baina azken urtetan mitoa besterik ez zena berreskuratu du: oriotarrontzat bigarren postua txarra da eta garaipena da helburu bakarra.



Manu Etxeberria

Zer moduz ari zarete denboraldi-hasiera honetan?

Nahiko normal ari garela iruditzen zait, nik nahi adina estropada ez ditugu irabazi baina... Bateletan irabazi ditugu batzuk: infantiletan, kadetetan jubeniletan eta seniorretan eta momentuan gauza ondo dihoa.

Jubenil eta seniorretan Euskadiko txapelketa irabazi dugu bateletan. Ligilan infantilak eta jubenilak irabazi zuten.

Bestalde, banko mobillean, maiatzaren 23an Legutian egin ziren klubaren arteko txapelketatan, resultado onak izan

ditugu: lehen postua laukoan, zortzikoan eta skifean eta bigarrena skul bikoltzean.

Inportanteenada, hala ere, maila guztietan hartu dugula parte. Askotan emaitza hobeak lortzen dira maila batzutan bakarrik parte hartzen bada, tripulazio bakarra aterata, baina nerretzat oso inportantea da guztietan parte hartzea, guztietan “saltseatzea”.

Lehengoan test bat, prueba bat, egin genuen traineriletan eta ematen du aurten trainerila ere nahiko polita daukagula,

disputatzera joateko modukoa.

Zer moduz ari dira moldatzen gazteak senior mailan? Erreleboa gertatzen ari al da?

Bai, batzuekin bai. Gehiago ere banituen baina jubeniletatik pasatuko gazte batzuk —bost bat edo— alde egin didate aurten klubetik, gauzak ondo ez omen ditudalako egiten.

Iruditzen zait klubak ez duela horrekin asko galduko baino gazte horiek orain kalean ibiltzea uste

ditu galtze handia dela. Nerretzat, nahiz eta estropadak irabazteko izan ez, oso positiboa izango litzateke hemen, klubean, ehun gazte ibili beharrean, berrehun ibiliko balira. Denak ez dira enbarkazioetan sartuko baina beheko jendeak ere bere lana egiten du.

Iaz Kontxa irabazita gero, badakizue aurten beste hainbeste eskatuko dutela zale-tuek...

Bai, Orioko herriak bandera-gose handia zeukan aspaldiko urtetan eta hori normala da. Nerretzat inportanteena da berriz lehen mailan gabiltzala; Orio urte batzutan hor ibili da muturra atera ezinik eta orain

“Estropadak irabazteko ilusio handiz ari gara lanean”

ELKARRIZKETA

behintzat disputatzera aterako gara.

Gu irabazteko ilusio handiz ari gara lanean, bai ni, bai mutilak eta bai direktiba ere; ea joan den urtean bezain ondo edo hobeto egiten dugun. Ezin dut esan Kontxa irabaziko dugunik, baina bai hor ibiliko garela eta Kontxa ez bada, besteren batzuk irabaziko ditugula.

Aurten zein izango da Orioren aurkakorik handiena?

Ba nik uste dut joan den urtekoak izango direla, bai San Pedro eta bai Donibane. Gero, laugarrena ez dakit... lazko tripulazioa baldin badu, baliteke Arraun izatea edo, beharbada, deskuidoren batean Arraunek huts egiten badu, Koxtape, jende gaztea eta arina dauka eta.

Zenbat txalupa atera behar dituzue aurten?

Bakarra, aurten bakar-
ra aterako dugu. Lehen
aitatu ditudan gazte ho-
riek alde egin aurretik
baginen bi txalupa osat-
zeko adinako kuadrila

ere, baina alde aurretik
erabakita geneukan
bakarra ateratzea. Egon
zen tenporada hasieran
planteamendu bat, za-
rauztarrek egina, biga-
rren txalupa Zarautzen
izenean ateratzeko, han-
go jendearekin batera.
Nerretzat plantemendu
ona zen, baina gero ez
da gauzatu. Guk ere baja
dexente izan ditugu,
tenporada hasieratik
hona hamar bat edo;
esandako bost horietaz
gailu, beste batzuk ere
izan dira laga dutenak,
lanegatik edo estudioen-
gatik eta abar

Climent Espainiako Federazioko presidente berria izateak ze alda ketak ekar litzake Oriorentzat eta euskal taldeentzat?

Momen-
tuan ez daki-
gu. Nik daki-
dana da lehen
zeudenak ez
zutela ezer
egiten Orioren

alde. Oraingoak gutxia-
go egitea zail da. Nik es-
katuko nieke orain sartu
direnei gauzak ondo egi-
teko; erregelamenduak
eta badaude eta horiek
betearazi egin behar dira.

Gainontzean, ez dut
uste Federazioan Presi-
dente bat egon edo bes-
tea egon alde handia
izango denik. Hala ere,
esan behar dut nik poza
handia hartu dudala au-
rreko presidentea kendu
dela ikusita, zeren eta ni
ikaragarri gaizki tratatu
bainau Vaqueriza jaunak.
Eta bere ekipoa ere ez
zen ondo egindakoa,

gobernu faltsua zen; ez
zen lana eginda irabazi-
tako gobernu, baizik eta
"golpe de estado"z ira-
bazitakoa. Ez du behin
ere garbi jokatu eta neri
inuditzen zait garbi jokat-
zen ez duen pertsona
arraun mundutik zenbat
eta kanporago egon
hobe dela. Ejenplua he-
men daukagu dopinga-
ren asuntorekin; positi-
bo emandako mutilak
hor ari dira arraunean
oraindik, ez dute santsi-
orik eta estropadak
jokatzen segitzen dute.
Nora erori da arrauna-
ren deportea?



URBAZTER

Aseguru eta bidai agentzia

San Nikolas kalea, 8

☎ 13 33 14

KarKara

aldizkaria

83 15 27

DENETIK PISKA BAT

Zorionak

Orioko futbol rejionalekoei

Orioko futbolari gazteek lehenengo denboraldian bigarren mailatik lehenengora igotzea fortu dutelako merezimendu osoz, eta Orion estropadarik gabeko lehenengo alirona jasotzeko adinako meritua egin dutelako. Ikastolak egun horretan bertan frontoian antolatutako bertso jaialdian Andoni Egañak botatako bertso honek gordetzen duen erronkari, ea behar bezelako erantzuna emateko gauza zareten.

Garai batean zuen herri hau
murgidu zen arraunera,
ondoren modak agintzen zun da
bildu ziren futbolera,
bide hortatik heldu omen zan

Imanol Errealera,
orain taldea igo dezute
lenego rejionalera,
mila zorion eta Zarautzen
laister ikusiko gera.

Zoriotxarrak

Balea Elkarteari

Elkarte honek antolatutako arraunari buruzko mahai-ingurua gaztelera hutsez izan zelako. Arraunari buruz hitz egiteko euskaldun jendea ez da falta ingurutan eta ez dago aitzakiarik horrelako mahai inguru bat Orion erdaraz antolatzeko.

Apirilean hildakoak

Maria Pilar Inuretagolena Rekondo,
apirilaren 5ean

Maria Axun Aizpurua Azkue,
apirilaren 24ean

Apirilean jaiotakoak

Iñaki Lizaso Lopez-Mora, apirilaren
7an

Maria Salagre Huertos, apirilaren
21ean

Iratl Zabaleta Larrañaga, apirilaren
23an

Ainhoa Illarramendi San Sebastian,
apirilaren 28an

Apirilean ezkondukoak

Apirilean ez zen inor ezkondu

Kaixo Edaritegia

Ogitartekoak
eta pintxo bereziak

Tfnua: 13 07 73

LAIARI

izozkiak

Eusko Gudari, 42 Telefonoa: 13 42 64

GURE TXOKO

TABERNA

ARITZAGA KALEA

SARASUA ERRETEGIA

Berezitasunak: -Arrai zopa
-Arrai eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29
83 00 06
Tfnua: 13 25 32

BORDATXO
Taberna

☎ 13 30 14

DENETIK PISKA BAT

ERREZETA

Xapua Amerikako erara (Sega jatetxea)

Osagaiak:

- | | |
|----------------|------------------------|
| ● Xapua | ● Tomate gordina |
| ● Olio | ● Baso bat ardo txuria |
| ● Tipula | ● Kopa bat koñak |
| ● Porrua | ● Arrai salda |
| ● Azanarioak | ● Gurina |
| ● Ganba azalak | ● Bi karramarro |

Egiteko modua:

Saltsa: Oliotan tipula, porrua, azanarioak, ganben azalak eta bi karramarro jarri eta su bajaran egiten utzi. Tomate gordina eta baso bat koñak gehitu eta su eman. Arrai salda gehitu eta hamabost minutuz irakiten utzi. Txikitu eta gero koladoretik pasa.

Xapua: Paela batean olio eta gurina piska bat jarri, gatza bota, ogirinetan pasa eta sapuaren bi alderdiak ondo prejit. Su eman koñakarekin batera eta saltsa amerikarra gehitu. Hamar minutuz irakiten utzi. Lurrezko kazuela batean jarri eta perejila gehitu.

ORIOARTEKOari bidalitakoak

Maiatzean ere oriotar askok jo du Oriartearengana, bere burutazioak agertzeri eta denetzako toki faltaz, hona hemen horietako batzuk:

- "Kultur zale" bat zuzendu da guregana ironia piska batez zera esanez: "beste herrietan maiatzari loreila edo loreen hila deitzen dioten bezela Orion kultur-hila deitu behar diogula, gure herrian loreak bezela sortzen direlako kultur asteak hilabete honetan. Ikastolak kultur-astea, Baleak kultur-astea eta Talai-Mendik kultur-hila, eta gero urte osoan sekulako lehortea, eta ez lorarik eta ez kultur-asterik eta ez ezer".

- Zaharren etxea antolatzen dituzten eskursioak direla eta, han gertatzen den gauza batek txikitako kontu bat ekartzen omen dio gogora oriotar bati. Honek dioenez txikiak zirenean meza nagusitik atera eta Zine Leundako kolan jartzen omen ziren 5'15etako pelikularako txartelak hartzeko, bazkaltzera joateko txandatu. Eta gaur egun hainbat "zaharrek" beste horrenbeste egiten omen dute eskursioetarako txartelak hartzeko. Hamarretan hasten dira billeteak saltzen eta goizeko bostetarako hasten omen da jendea kolara inguratzen, gero gosaltzerako joateko txanda hartuz. Bigarren haurtzaroa nonbait!

- Orioko ikastolak sortu zenetik hartu behar izan duen erabaki inportantea eta behar bada zailena hartzeko, alegia publikora edo pribatura jo, herriko elizan bildu ziren. Hori dela eta batek idatzi digu galdetuz ea Izpiritu Santuaren ikutuaren beharra ote zuten erabaki zuzena hartzeko.

Ijimoto

TXOMIN

ARRAINDEGIA

Eusko Gudari, 42

Tfnoa: 83 27 47

LIZASO

ALTZARIAK

Eusko Gudari, 46 ☎ 83 07 84

Aita Lertxundi, 6 ☎ 13 33 01

Marisko Biberoak

Telefona: 13 12 97

- Angulak
- Mariskoak
- Arrai finak

Ostalaritza Zerbitzua

Autoak aukera onean

AIA ORIO

Telefona: 13 04 30

DENETIK PISKA BAT



EZETZ EZAGUTU! aurreko aleko irabaz-
lea Maribel Oliden izan da. Zorionak!

Hemen duzue Maribelek idatzitako eran-
tzuna:

- ✓ Jose Migel Lasa
- ✓ Jose Peña
- ✓ Benjamin Sagarna
- ✓ Anjelita Lertxundi
- ✓ Jeronima Lertxundi
- ✓ Paxita Peña
- ✓ Mercedes Salsamendi
- ✓ Gregoria Salsamendi
- ✓ Ramona Erzilla
- ✓ Miren Loidi
- ✓ Maria Lizaso
- ✓ Maria Luisa Lizaso

LIZASO

**ERLOJU eta
BITXI DENDA**

Kala, 3

Tfnoa: 83 10 90

ITURAIN
okindegia

Aritzaga

☎ 83 08 28

K2

AURRERA

disco-taberna

ORIO

ITZiAR

Kirolak

Eusko Gudari, 23 ☎ 83 31 03

ORIO



Izarra

Bideo-produkzioak
Hi-Fi TV Bideoak
LPak, CDak eta zintak

Izarra Atorrasagasti

Aritzaga kalea 5
Tfnoa: 83 38 81

OLIDEN HARATEGIA

EUSKO GUDARI, 2

TfNOA 83 10 86

AZKENA



EZETZ EZAGUTU! lehiaketa

Ale honetako gure argazkia 1932an, jaunartze haundian aterea da. Oraingo honetan argazkian azaltzen diren mutil horietako hamarren izenak eman behar dizkiguzue. Aipatu behar da argazkiko apaizak, Hondarribian jaioetako D. Migel Mujikak, ez zuela kanpaiak jotzen uzten Oriok estropada irabazten zuenean.

Orain arte egin dugun bezala, afari bat zozketatuko dugu asmatzaileen artean. Afaria **Itsas Ondo Jatetxean** izango da.

Eraritzunak **ekainaren 18rako** bidali behar dizkiguzue. Gure helbidea, dakizuenetz, honako hau da:

KARKARA aldizkaria

Ezetz ezagutu! lehiaketa

Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara)

ITSAS-ONDO

Bataioak, jaunartzeak, negozio eta talde bazkariak



Kaia kalea, 7
tfnoa: 13 11 79

PATXI
HARATEGIA
Telefonoa: 83 18 37

URAITZ
LURRINDEGIA
KIROMASAIJA ESTHETICIEN
ENDAIJA 3 TFNOA 83 18 97

Antilla
Jatetxea
Abeslari, 2
Tfnoa: 83 07 50

ORIOKO PROMOZIOAK I, s.l.
2, 3 eta 4 gelatako etxebizitzak
merkatal lokalak eta garaiejak
kale, 8 Tfnoa: 83 41 44 Orto 32810

ERRUSTA
taberna
Kriston bokadillok!!

KAIA
JOLASAK

ZUMINTZA
♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦
• Ileapaindegia • Estetika
• Depilazioa • Sauna
♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦ ♦
Tfnoa: 83 17 56

Garmendia
aseguru-agentzia
83 44 66

ALTXERRI
Jatetxea
Telefonoa: 83 07 62

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO MATERIALAK
ANTONIO ALONSO, S.L.
■ Gres eta azulejuen erakusketa
■ Komun eta sukaldeko altzarien erakusketa
■ Sukalde ekonomikoak


Almazena eta erakusketa
Santiago auzoa
tfnoa: 13 25 33
faxa: 83 57 01

Denda eta ofizina
Iturbide, 5
tfnoa: 13 10 88

Carmen
ARRAINDEGIA
tfnoak: 83 05 37 83 33 71

ARGI-GAIK
elektrizitatea
argi halogenoak
Iturbide, 11

MAPFRE, S. A. - Aseguruak
TALAI, S. M. - Aholkulariak
TFNOA: 13 37 20 Eusko Gudari 44 A behea ORIO



D. Bastos
1989